



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 17a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00300. Galdera, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzeta-hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-22/PES-00301. Galdera, Sesmako “Ega 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 10-22/PES-00302. Galdera, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00303. Galdera, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00304. Galdera, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-22/PES-00306. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuarterko Azpibatzerdeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00307. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00308. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-22/PES-00309. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 110-22/PES-00310. Galdera, Sodena, CEN eta Albynen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00311. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskarei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- 10-22/PES-00312. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 110-22/PES-00313. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberbitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 10-22/PES-00314. Galdera, legegintzaldi honetan Oinarrizko Osasun Eskualdeetako Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 10-22/PES-00315. Galdera, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 10-22/PES-00316. Galdera, Lehen Mailako Arretako familia-medikuen eta pediatrien lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 0-22/PES-00319. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostean gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 110-22/PES-00320. Galdera, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 10-22/PES-00321. Galdera, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 10-22/PES-00322. Galdera, Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 10-22/PES-00323. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetzak akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 10-22/PES-00324. Galdera, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 10-22/PES-00325. Galdera, Ingeleseaz Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 10-22/PES-00326. Galdera, Allozko urtegi uez Salado ibaian ureztatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 10-22/PES-00327. Galdera, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zor dion errentari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 10-22/PES-00328. Galdera, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 10-22/PES-00329. Galdera, Nafarroako patologien baheketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 10-22/PES-00330. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 10-22/PES-00331. Galdera, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 10-22/PES-00332. Galdera, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 10-22/PES-00333. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarrii buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 10-22/PES-00334. Galdera, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00300. Galdera, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzahitzarmenei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, New Yorkeko Klimaren Astean lortu diren lankidetzahitzarmenei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du New Yorkeko Klimaren Astean entitate, enpresa, administrazio publiko eta abarrekin lortu diren lankidetzahitzarmenei buruz. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ematen dion informazioa:

New Yorkeko Klimaren Astean zer lankidetzahitzarmen lortu da entitateen, enpresen, administrazio publikoen eta abarren aldetik?

Nafarroak New Yorkeko Klimaren Astean parte hartzearen helburua ez zen lankidetzahitzarmenak lortzea, baizik eta ingurumen arloko espe-

rientziak trukatzea munduko beste eskualde batzuekin eta Nafarroa horrelako politiken alde engeiatutako eskualdea dela erakustea.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak, zehazki Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, Under 2 Coalition nazioarteko sarearen gonbidapena onartu zuen Klimaren Astean parte hartzeko eta Foru Komunitateak ingurumenaren arloan dituen legeen eta proiektuen berri emateko.

Hala ere, kontseilariaren agendan lan-bilera bat ere izan zen Espainiak New Yorken duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoko ordezkariekin, Nafarroako nekazaritzako elikagaiak Estatu Batuetako merkatuan kokatzeko hurrengo sustapen-ekintza bati begira.

Bide horretan, Nafarroako Gobernuak eta INTIAko lantaldeak dagoeneko lanean ari dira, planteatutako aukerak zehazten, Nafarroako produktuek parte har dezaten kalitate bereziko nekazaritzako elikagaien hurrengo azoketako batean AEBetan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00301. Galdera, Sesmako “Ega 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sesmako “Ega 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera egin du (10-22/PES-00301) zenbait argibide eskatzeko, Jurramendiko Mankomunitatearen ur saretik ura hartu dela-eta Sesmako “Ega 3” ureztalurretan presio-probak egiteko.

Noiz gertatu da? Zergatik? Nork eskatu du? Zer puntu zehatzetatik hartu da ura? Zenbat ur kontsumitu da? Zer neurri hartu dira mankomunitateko sarea ez kutsatzeko? Nork ordainduko du kontsumoa?

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak adierazten du aipatu sektoreko

ureztalurretako banaketa sarea presio-probak egiteko xedez erabili dela Jurramendi Mankomunitatearen sareko ura, Aguas de Navarra aldi baterako enpresa-elkarteak jakinarazi duenez.

Aguas de Navarra ABEEak horretarako eskaera formala egin dio Jurramendiko Mankomunitateari, eta berak ordainduko du kontsumoa. Irailaren 19ra arte 4.513 m³ ur kontsumitu dira jatorrian.

Ura udan zehar kontsumitu da modu mailakatu, egin diren presio-probetarako beharra izan ahala.

DN80 kontagailua Sesmako 3. poligonoko 272. lurzatian dago, eta horniduraren helbidea Sesmako Kale Nagusiko 115. zenbakia da.

Mankomunitatearen sarea ez kutsatzeko hartutako neurriei dagokionez, Aguas de Navarra ABEEak ziurtatu du ezinezkoa dela Mankomunitatearen sarea kutsatzea, deribazioa egin delako kontagailu independente batekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

10-22/PES-00302. Galdera, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera egin du (10-22/PES-00302) zenbait argibide eskatzeko, Jurramendiko Mankomunitatearen ur saretik ura hartu dela-eta Sesmako “Ega 3” ureztalurretan presio-probak egiteko.

Zergatik erabili dira Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio-probak egiteko? Ba al dago horrelako beste probaren bat egiteko asmorik?

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak adierazten du aipatu sektoreko banaketa sarean presio-probak egiteko xedez erabili dela Jurramendi Mankomunitatearen sareko ura, hornidura iturri hurbilena izateagatik.

Antzeko beste probaren bat egiteko asmoari dagokionez, esan behar da beste bi proba daudela egiteko, behin FD600 hoditeria jartzen amaitzen denean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

10-22/PES-00303. Galdera, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan

privatizatzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

- Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuaren txostena erantsi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: Itziar Gómez López

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

10-22/PES-00304. Galdera, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal-edo zerbitziburutzei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00304), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: “65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal-edo zerbitzu-burutzak, eta okupazio horietako bakoitzaren iraupena legegintzaldi honetan zehar”. Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

UNITATEA	EGINKIZUNA	Jaiotze-urtea	Noiztik
OM: OSASUN MENTALEKO IA SEKTOREA (ALDE ZAHARRA)	OSASUN MENTALEKO SEKTOREKO ZUZENDARIA	1954	2020/07/01
NOU: BELAUNEO KIR. ORT. ETA TR. ATALA I	LAGUNTZA ATALEKO BURUA - BFE/ALBOKOA	1955	2013/01/21
LIZ: LOS ARCOS OOLT	TALDEKO ZUZENDARIA-III	1956	2011/02/01
NOU: PSIKIATRIA ZERB.	LAGUNTZA ATALEKO BURUA-BFE/ALBOKOA	1957	2015/03/31
NOU: BARNE MEDIKUNTZA ZERB.	LAGUNTZA ATALEKO BURUA-BFE/ALBOKOA	1957	2016/08/28
TUT: BARNE MEDIKUNTZA ZERB.	LAGUNTZA ATALEKO BURUA-BFE/ALBOKOA	1957	2022/02/01

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00306. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuartereko Azpibatzerdeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin orge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuartereko Azpibatzerdeari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuartereko Azpibatzerdeari buruz (10-22/PES-00306). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko 6. arloak erreferentzia egiten dio desgaitasunaren zeharkakotasunari. Helburu nagusia du desgaitasuna zeharkakotasunez txertatzea Foru Administrazioaren politika, zerbitzu eta jarduketak guztietan.

Arlo horretako 1. ildo estrategikoak zenbait ekintza proposatzen ditu sektore arteko eta maila anitzeko koordinaziora eta integrazioa bideratuak; tartean, osasun mentalerako departamentuartereko azpibatzerde bat sortzea, nahasmendu mentala duten pertsonentzat Planean jaso diren jarduketak garatzeko. Lehendik ere badago departamentuartereko batzorde tekniko bat, Osasuneko eta Eskubide Sozialetako departamentuak elkarrekin koordinatzen dituen nahasmendu mental larria duten pertsonen baliabideak eskuratu ahal ditzaten. Horregatik, batzorde horren egiturari eutsi zaio. Hilero biltzen da, hil bakoitzeko hirugarren ostiralean (uztailean eta abuztuan ez da biltzen, aparteko egoerei erantzuteko bilera deia egiten denean izan ezik).

Ohiko gai-zerrendan, gaixotasun mental larria dutenentzako egoitza-zerbitzua (GMEL plaza bat) eskatzen duten pertsonen kasuak baloratzen dira. Halaber, baliabide horietako egoiliarren birbalorazioa egiten da, eta beste batzorde batzuek aztertzeke dauzkaten kasuak aztertzen dira.

Honako hauek osatzen dute batzordea:

- Ainhoa Trébol Urra, PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Ataleko burua.

- Pilar Ferrero Peso, PAGNAko Programen eta Dirulaguntzen Ataleko burua.

- Cristina Rubio Ortega, PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoko burua.

- Leire Elizalde Carballo, Osasun Mentalaren Arloko teknikari arduraduna. Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala.

- Gloria Elgorriaga Aranaz, Ekintza Soziosanitarioko koordinatzailea. Osasun Mentaleko Kudeatzailetza.

- Eduardo Manrique Astiz, Osasun Mentaleko Kudeatzailetzako Errehabilitazio Klinikako psikiatra.

- María Otero Larrea, psikologo klinikoa, Osasun Mentaleko Kudeatzailetzako Lehen Gertakari Psikitikoen Zerbitzuko zuzendaria.

Batzordean bi lantalde sortu dira Desgaitasun Planaren garapenarekin zerikusia duten gaiak lantzeko:

- Bata, gaixotasun mentala duten pertsonentzako etxebizitza-baliabideak baloratzeko. Lantalde hori lau aldiz bildu da 2022an (03-22an, 04-06an, 04-28an eta 05-17an).

- Bigarrena, gaixotasun mentala duten pertsonen errehabilitazio psikosozialerako baliabideak eta baliabide okupazionalak baloratzeko. Hiru aldiz bildu da (05-10ean, 05-26an eta 06-08an).

Bi taldeek xedetzat dute egungo zerbitzuak aztertzea eta haiek Planaren printzipioetara egokitzen aurrera egiteko ekarpenak egitea, pertsonak erkidegoan atxikitzea sustatuz eta pertsona ardatz duen artapen ereduaren arabera lan eginez. Zehazki, ahulezien, indarguneen, antzeman-

dako premien, hobetu beharreko arloen eta hobetzeko proposamen zehatzen azterketa egin dute, bai gaixotasun mentala duten pertsonentzako etxebizitza-baliabideetan, bai errehabilitazio psiko-sozial eta okupazionalerako zerbitzuetan.

Honako pertsona hauek aritu dira gaixotasun mentala duten pertsonentzako etxebizitza-baliabideen lantaldean:

- Olga Sala López. PAGNAko Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetzako burua.

- Ainhoa Trébol Urrea. PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Ataleko burua.

- Cristina Rubio Ortega, PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoko burua.

- Leire Elizalde Carballo, Osasun Mentalaren Arloko teknikari arduraduna. Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala.

- Gloria Elgorriaga Aranaz, Ekintza Soziosanitarioko koordinatzailea. Osasun Mentaleko Kudeatzailetza.

- Maria Galindo Jordán. Gizarte langilea. Burlatako OMZ.

- Gorka Colomo Aracama, gizarte programen koordinatzailea. Xilema fundazioa.

- Alberto Urteaga Villanueva. Itxaropenguneko koordinatzailea.

- Sara Lizaur Expósito. VIVIREMeko koordinatzailea. Ahizpa Ospitalariak.

- Maite Resano Sesma. AVANVIDAren eta Mejorando Cada Día fundazioaren etxebizitza gainbegiratuetaiko koordinatzailea.

- Magda Lanás Murio. FUNDAPA.

- Irache Ojer Campos. Mentalia Pamplonako zuzendaria.

Eskubide Sozietako eta Osasuneko departamentuen ordezkariak gain, gaur egun Nafarroako Foru Komunitatean nahasmendu mentala duten pertsonentzako ostatu zerbitzuak kudeatzen dituzten entitate guztiak gonbidatu ziren. Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzak emateko Nafarroako Fundazioa ere gonbidatu zen, zerbitzu horien erabiltzaile asko ordezkatzeko dituelako eta ongi eza gutzen dituelako kolektiboaren beharrak.

Honako pertsona hauek aritu dira gaixotasun mentala duten pertsonen errehabilitazio sozialerako baliabideak eta baliabide okupazionalak baloratzeko lantaldean:

- Olga Sala López. Balorazioen eta Zerbitzuen zuzendariordea. PAGNA

- Ainhoa Trébol Urrea, PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Ataleko burua.

- Pilar Ferrero Peso. PAGNAko Programen eta Dirulaguntzen Ataleko burua.

- Cristina Rubio Ortega, PAGNAko Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoko burua.

- Gloria Elgorriaga Aranaz, Ekintza Soziosanitarioko koordinatzailea. Osasun Mentaleko Kudeatzailetza.

- Laura Oderiz Mendioroz. Gizarte langilea. Antsoingo OMZ

- Magda Lanás. FUNDAPA. Osasun Mentalaren Arloa.

- Sara Lizaur Expósito. EPSZko koordinatzailea. Ahizpa Ospitalariak.

- Maria Jose Aguirre Rodrigo. Gizarte langilea. Ahizpa Ospitalariak.

- Cristina Monreal Guillorme. Arga EPSZko zuzendaria. AVANVIDA.

- Silvia Mateo Asín. Zuzendaria. Félix Garrido EPSZ

- Cristina Jaúregui. ELKARKIDE. Lizardiko zuzendaria.

- Olga Barbarin. ELKARKIDE. Aranzadiko zuzendaria.

Talde horretan, Osasuneko eta Eskubide Sozietako departamentuetako ordezkariekin batera, Eskubide Sozietako Departamentuak kontrataturiko errehabilitazio psikosozialerako zerbitzuen arduradunak sartu dira, bai eta gaur egun nahasmendu mentala duten pertsonen berriarazko arreta ematen dien Elkarkide entitatearen zentro okupazionalerako arduradunak ere. FUNDAPAko langile bat ere sartu da taldean.

Zerbitzuak baloratzeko prozesu horretan eta lantalde horien testuinguruan honako bilera hauek ere egin dira arloko beste eragile batzuekin:

a) 2022ko apirilean eta martxoan elkarrizketak egin ziren nahasmendu mental larria duten pertsonen intentsitate desberdinetako laguntza ematen zaien etxebizitzaerako pertsonen, haien iritzien eta beharren berri jakiteko.

- 2022/03/09 Xilema fundazioak kudeatzen duen etxebizitza gainbegiratuetaiko erabiltzaile bat.

- 2022/03/11 ANASAPSek kudeatzen duen etxebizitza laguntzaduneko erabiltzaile bat.

- 2022/03/21 Jesusen Bihotzaren Ahizpa Ospitalariek kudeatzen duten egoitzari (Aita Menni klinika) lotutako etxebizitzako erabiltzaile bat.

- 2022/03/30 ITXAROPEN GUNEk kudeatzen duen tutoretzapeko etxebizitzako erabiltzaile bat.

- 2022/04/01 AVANVIDAK kudeatzen duen etxebizitza gainbegiratuako erabiltzaile bat.

b) 2022ko otsailean eta martxoan bilerak egin ziren osasun mentalaren arloan ordezkari-tasuna duten elkarteekin eta FUNDAPArekin.

- 2022/02/11 Bilera ANASAPSekin.

- 2022/02/21 Bilera Meiorana elkartearen ordezkariekin.

- 2022/03/31 FUNDAPAre ardurapeko laguntza neurriak dituen pertsona bat.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00307. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruz (10-22/PES-00307). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Nafarroako Planeko 7.1 ildo estrategikoan jarduketara hau jaso zen: "Planeko zuzendaritzako edo aholkularitzako kontseilua sortzea, zeinean ordezkari eta partaide izanen baitira desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten entitateak eta gizarte eragileak, planaren jarraipena egiten eta hura betetzen parte hartzen

dutenak; kontseiluak eskumenak izanen ditu emaitzak berrikusteko eta lehentasunak zehazteko, eta gizonen eta emakumeen ordezkari-tasuna orekatua izanen du".

Zuzendaritza edo aholkularitzako kontseilu horren eginkizunak Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluak betetzen ditu. Apirilaren 4ko 28/2011 Foru Dekretuan arauturik dago, eta haren helburua da desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiek osatutako elkarteekin eta Nafarroako Administrazio Publikoaren arteko lankidetzaren instituzionalizatzea, herritarren sektore hori gizarteratzea xede duten politika eta jarduketaren planifikazioan, betearazpenean eta jarraipenean elkarlanean jardun dezaten.

Kontseiluari arau horretan esleitutako eginkizunetako bat da "nahitaezko txostenak ematea gizarte jarduketako esparru horretako plan sektorialeko buruz, eta horien aplikazio eta gauzatze mailaren jarraipena egitea".

2019ko maiatzaren 28an plana onetsi zenetik, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluak bederatzirekin egin ditu, egun hauetan:

- 2019-12-16

- 2020-30-04

- 2020-14-07

- 2020-06-10

- 2020-18-12
- 2021-11-05
- 2021-24-09
- 2021-16-12
- 2022-20-06

Desgaitasunaren Kontseiluko lehendakaria Eskubide Sozialetako kontseilaria da; lehen lehendakariordea, CERMINeko lehendakaria; bigarren lehendakariordea, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako (PAGNA) zuzendari kudeatzailea. Eta hauek dira gainerako kideak: Administrazioaren aldetik, PAGNAko Kudeaketaren eta Baliabideen zuzendariordea, idazkari aritzen dena; PAGNAko Balorazioen eta Zerbitzuen zuzendariordea; Nafarroako Enplegu Zerbitzuko kudeatzailea; Errealitate Sozialaren Behatokiaren zuzendaria; Hezkuntza Departamentuko Inklusio, berdintasun eta Bizikidetzaz Zer-

bitzuko zuzendaria; Osasuneko zuzendaria; eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bi ordezkari. Eta desgaitasuna duten pertsonen elkarte nagusien ordezkari gisa, COCEMFE eta Plena Inclusión erakundeen ordezkariak eta CERMINeko beste bost pertsona, desgaitasun mota bana ordezkatzeko dutenak.

Egindako bileren gai-zerrenda erantsi da.

Hori guztia jakinarazten dut,

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-
ren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 11n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

10-22/PES-00308. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruz (10-22/PES-00308). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Nafarroako Planeko 7.1 ildo estrategikoan aurreikusten da departamentuarterko batzorde

paritario bat sortzea, berariaz desgaitasunaren eta irisgarritasunaren arloan aholku eman diezaien planean parte hartzen duten administrazio eta mailei. Ikusi da, ordea, batzorde horren xedearen zati handi bat bere gain hartu duela Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluak, zeina Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean araututa baitago.

Kontseilu hori parte-hartzean oinarritutako organo bat da, lehendakaritzako eskumena duen departamentuari atxikia, irisgarritasunaren arloko araudiaren arloan kontsulta, interpretazio, jarraipen eta kontrol eginkizunak dituena; bertan Nafarroako Gobernuak departamentu guztiak daude ordezkaturik, eta, horiez gainera, ordezkariarik handieneko elkarteak, desgaitasuna dutenen eskubideak defendatzeko helburua dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak eta inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo ematen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, bai eta toki entitateak ere.

Kontseiluko burua lehendakaritzako eskumena duen departamentuko titularra da eta, horrez gain, kide hauek ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat, gutxienez ere zuzendari nagusiaren maila duena, Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzeko. Edozein kasutan ere, lehendakaritzako eskumena duen zuzendari nagusia kontseiluko kide izanen da, eta idazkari lanak beteko ditu.

b) Administrazio elektronikoaren arloan eskumena duen zuzendari nagusia.

c) Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren ordezkari bat.

d) Desgaitasuna dutenen arloan ordezkari handienekoak diren irabazi-asmorik gabeko erakundeek lau ordezkari. Ordezkaritza handieneko erakundeak dira halakoak direnak bai kuantitatiboki, kide gehien dituztenak izateagatik, bai kualitatiboki, dauden desgaitasun mota desberdinetatik gehiago biltzeagatik.

e) Ordezkaritasunik handieneko kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteen bi ordezkari.

f) Inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarten hiru ordezkari.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturik hautatuak.

Kontseilu hori 2021eko maiatzaren 31n eratu zen, eta berriz bildu zen 2022ko apirilaren 4an eta urte bereko ekainaren 27an.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00309. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako 10-22/PES-00309 idatzizko galderari buruz.

Honako hau dio galderak, Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoak direla eta:

1. Non banatu ziren Kontsumo Zerbitzuak, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan, erositako 2.000 maskara kirurgikoak?

Maskara kirurgiko horiek Kontsumo Zerbitzuko langileei banatu zitzaizkien pandemia garaian babesteko.

2. Zenbat erabili dira?

Guztiak erabili dira.

3. Zenbat geratzen dira erabili gabe eta zergatik?

Guztiak erabili dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua zedatua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

110-22/PES-00310. Galdera, Sodena, CEN eta Albynen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, CEN eta Albynen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak informazio eskaera aurkeztu du (10-22-PES-00310), zeinaren bidez honako argibide hauek eskatzen baititu: Osasun Departamentuak zergatik ez zituen gorde CEN-SODENA-Albyn hitzarmenean soberan geraturiko maskarak?

Nafarroako ETE, mikroETE eta autonomoei beren jarduerarako NBEak eskuratzeko Sodenak, CENek eta Albyk egindako hitzarmenaren gehigarrian jasorik dagoenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) material horren zati bat eskuratu ahal zezan, akordioko alderdiek aurretiaz hala eskaturik, baldintza zehatz batzuk bete behar ziren, baina ez ziren bete:

- Erosi baina enpresa eta elkarteei eskualdatu ez zaizkien NBEak eskualdatu ez izana justifikatzen duten inguruabar bereziak edo salbuespenekoak gertatzea.

- Erabilera sanitarioko NBEak izatea.

- Enpresa edo elkarteen borondatezko uko egiterik ez izatea.

- Eskari bakoitza ezagutzea % 10eko gehiengoa lortu ahal izateko.

Arpa, Garrigues eta Écija bulegoek txosten juridiko bana egin zuten eta akordioaren alderdi hori aztertu zuten, besteak beste, eta hirurak bat datoz konklusioetan: inguruabarrak eta gehigarrian ezarritakoa kontuan izanik, kontratuak ez zuten O-NOZ behartzen material hori erostera.

Hala ere, SODENA aritu zen O-NOZek materiala erosteko aukera aztertzen, 2020ko azaroan, 0,43 euroko prezioan maskara kirurgikoa eta 1,75 eurotan FFP2 maskara. Artean prezioak beherago zeuden, eta beraz, entitate juridikoki independenteak izanik, ezin ziren erosi prezio horietan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00311. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskarei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskarei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako 10-22/PES-00311 idatzizko galderari buruz. Honako hau zioen galderak:

1- Zergatik daude bi enpresa pribatutan biltegitratuta Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean soberan gelditu eta diru publikoaren bidez finantzaturako maskarak?

2- Nork erabaki du hori?

3- Zergatik erabiltzen da maskaren biltegitratze horretan ere enpresa pribatu bat, hitzarmenarekin zerikusirik izan ez duena?

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak PES 232/2022 idatzizko galderari erantzunez jakinarazi zuen bezala, 2020ko ekainaren erdi aldera, CENek enpresentzat egiten zituen eskarien erritmoa eta bolumena motelduta zeuden, ez ziren helarazitako aurreikuspenen arabera kudeatutako eskariak gauzatzeko adina, eta material stock-a biltegitratzeko leku faltaren arazoa sortu zen. Halaber, aurreko beste erantzun horretan informazioa eman zen alderdiek arazoari heltzeko 2020ko uztailearen 2an egindako bileraz eta, besteak beste, bilera hartan adostutakoaren haritik materiala biltegitratzeko leku bila egindako kudeaketaz. Enpresentzako NBE materiala eskuratzeko kanalean inplikaturako alderdiek elkarrekin adostutako kudeaketak izan ziren. Materiala biltegitratzeko leku faltaren arazoa enpresa pribatu baten laguntzari esker konpondu zen, lekua eskaini baitzuen ordainik eskatu gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-22/PES-00312. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00312), jakin nahi baitu “non banatu ziren NOPLOIk Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan erositako 1.000 FFP2 maskarak”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.000 maskarak Albyn Medicali erosi zitzaizkion 2020ko maiatzeko bigarren hamabostaldian.

Lan Osasunaren Zerbitzuan banatu ziren. Zehazki:

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Ataleko eta Istripuen Prebentziorako Unitateko teknikariei, bisitak egiteko enpresetara (kasu multzoa zuten enpresak, UVESaren hiltegiko eta nekazaritzako elikagaien sektoreko covid agerraldiak, etab.) eta zentro soziosanitarioetara (zaharren egoitzak eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak).

2. Lan arloko Balorazio Klinikoaren eta Ikus-katzailtza Medikoaren Ataleko langileei, kontsultetan pertsonak artatzen jarraitu baitzuten, konfinamendu gordineneko egunetan izan ezik.

3. Halaber, Lan Osasunaren Zerbitzuko langile bereziki sentikorrei maskarak eman zitzaizkien, eta Zerbitzuan toki itxietan bilerak egiteko ere erabili ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

110-22/PES-00313. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak galdera egin du “Nafarroako Erresumaren omenezko” monolitoaren garbiketari eta zaharberritzeari buruz (10-22/PES -00313). Hona Nafarroako Gobernuak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak uste du egindako jarduketak egokia izan dela? Ezin da hobeto garbitu eta zaharberritu? Nafarroako Gobernuak konforme dago lortutako emaitzarekin? Zein izan da jarduketaren kostua eta zein enpresak egin du?

Nafarroako Gobernuak Protokoloaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zerbitzua harremanetan jarri da hargintza lanetan aditua den Construcciones Leache enpresarekin, garbiketari profesio-

nala eta monolitoa eginda dagoen materialerako egokia egin dezan. Enpresak pieza birpintatu ere egingen du, eta ongi kontserbatzeko tratamendua emanen dio.

Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak baduela Zaharberritze Zerbitzu bat –fidagarritasun handikoa– Vianako Printzea Erakundearen Ondare Historikoaren Zerbitzuaren barruan, Nafarroako Gobernuak baloratu al du monolitoaren garbiketari eta zaharberritzearen aipaturako zerbitzu horrek egiteko aukera?

Ondare Historikoaren Zerbitzuak ez du zuzenean esku hartzen honelako ondasunetan. Baina narriadurari buruzko txostenak egiten ditu, enpresa espezializatuak hautatzen edo proposatzen ditu, lanak gainbegiratzen ditu eta titularrei aholku ematen die. Kasu oso berezietan soilik esku hartzen du zuzenean, gehienetan ondare balio handiko ondasunen kasuan edo premia nahiz larritasun bereziko egoeretan.

Galderan aipaturako monolitoak ez ditu betetzen irizpide horiek. Beraz, enpresa espezializatu batek egin behar ditu hura mantentzeko lanak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 2an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

10-22/PES-00314. Galdera, legegintzaldi honetan Oinarrizko Osasun Eskualdeetako Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, legegintzaldi honetan Oinarrizko Osasun Eskualdeetako Osasun Kontseilu bakoitzak egindako bilerei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00314); haren bitartez informazio hau eskatzen du: "Oinarrizko Osasun Eskualdeetako Osasun Kontseilu bakoitzak legegintzaldi honetan egindako bilera-kopurua". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

- Lizarrako barrutian, bat ere ez.

- Tuterako barrutian:

Tutera Ekialdea: 1

Tutera Mendebaldea: 1

Cintruénigo: 3

Cascante: 1

- Iruñeko barrutian:

Altsasu: 3

Berriozar: 4

Auritz: 2

Doneztebe: 2

Elizondo: 1

Uharte: 1

Irurtzun: 1

Leitza: 2

Lesaka: 2

Sanduzelai: 3

Zangoza: 2

Burlata: 2

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00315. Galdera, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prostatako minbizia duten pazienteak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara deribatzeari buruzkoa, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidezko tratamendurako. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00315); haren bitartez informazio hau eskatzen du: "Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen irizpideak prostatako minbizia duten gaixoak Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratzeko, Da Vinci kirurgia robotikoaren bidez tratamendua jaso dezaten". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Irizpide hauek erabiltzen dira deribaziorako:

Pazienteak:

- Bizi itxaropena > 10 urte

- Funtzionalak:

- Sexualki aktiboak, erekzioaren disfuntzioaren autoebaluaziorako IIEF5 testa gomendatu zaiena, gaztelaniaz balidatua (22tik gorako puntuazioa atera behar dute).

- Gernuari euste normala

- Onkologikoak:

- Prostatako kartzinoma lokalizatua eta arrisku txikikoa

- Prostatako kartzinoma lokalizatua eta arrisku ertainekoa, kapsulaz kanpoko gaixotasunaren probabilitaterik gabe edo probabilitate txikiarekin (EM eta/edo nomograma bidezko datuak)

- Prostatako kartzinoma lokalizatua eta arrisku handikoa, oso ongi aukeratutako kasuetan (erdiko tumorea, kapsulaz kanpoko erasanaren daturik ez EMan, eta ondeste-haztapan normala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00316. Galdera, Lehen Mailako Arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehen Mailako Arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostuei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00316), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Lehen Mailako Arretako familia-medikuen eta pediatren lanpostu-kopurua Oinarritzko Osasun Eskualde bakoitzeko, zehaztuta horietako zenbat dauden gaur egun egonkortasunez bete gabe eta zenbat betetzen diren aparteko

lanaldiekin edo ordezkapen ez egonkorrekin". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Erantzun honen datan familia-medikuen lanpostuen % 98,5 (hau da, 533tik 525) egonkortasunez beteta daude Nafarroan. Era berean, gaur egun pediatriako lanpostuen % 97,33 (hau da, 108tik 105) egonkortasunez beteta daude Foru Komunitatean. Lanpostu gehienak pediatriako mediku espezialistek betetzen dituzte, eta gainerakoak familia-medikuek. Bi kasuetan, familia-medikuntzan nahiz pediatrian, lanpostu batean ez baldin badago osasun langile bat lanpostu hori betetzen eta prestazio jarraitua ematen, produktibitate eta bestelako formulatar jotzen da lanpostuaren estaldura lortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Medikuntzako eta pediatriako lanpostuak (2022/11/23)	BETERIKO lanpostuak	BETE GABEKO lanpostuak Medikua pediatriako eginkizunetan	Gutzizko orokorra	
Osasun barrutia/Oinarrizko osasun eskualdea/Taldea	BAI		EZ	
01-IRUÑA	445	7	8	453
01-ALTSASU	10		1	11
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	9		1	10
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
02-ETXARRI-ARANATZ	8			8
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7			7
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
03-IRURTZUN	12		1	13
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	12			12
PEDIATRIAKO lanpostuak	0		1	1
04-LEITZA	9	1		9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8			8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1	1		1
05-LESAKA	8		1	9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7		1	8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
06-ELIZONDO	15	1		15
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	14			14
PEDIATRIAKO lanpostuak	1	1		1
07-DONEZTEBE	9			9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8			8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
08-ULTZAMA	7			7
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6			6
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
09-AURITZ	9			9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	9			9
10-AGOITZ	6			6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	5			5
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
11-UHARTE	13			13
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	10			10
PEDIATRIAKO lanpostuak	3			3
12-ATARRABIA	9			9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7			7
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
13-BURLATA	14			14
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	11			11
PEDIATRIAKO lanpostuak	3			3
14-BERRIOZAR	10			10
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7			7
PEDIATRIAKO lanpostuak	3			3
15-ORKOIEN	9			9

Medikuntzako eta pediatriako lanpostuak (2022/11/23)			
	BETERIKO lanpostuak	BETE GABEKO lanpostuak Medikua pediatriako eginkizunetan	Gutzizko orokorra
Osasun barrutia/Oinarrizko osasun eskualdea/Taldea	BAI		EZ
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7		7
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
16-SANDUZELAI	8		8
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6		6
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
17-ARROTXAPEA	19		19
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	14		14
PEDIATRIAKO lanpostuak	5		5
18-TXANTREA	14		15
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	11		12
PEDIATRIAKO lanpostuak	3		3
19-ALDE ZAHARRA	9		9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8		8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1		1
20-II. ZABALGUNEA	15	1	15
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	12		12
PEDIATRIAKO lanpostuak	4	1	3
21-ARROSADIA	9		9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7		7
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
22-ITURRAMA	15		15
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	13		13
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
23-DONIBANE	20		20
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	17		17
PEDIATRIAKO lanpostuak	3		3
24-ERMITAGAÑA	11		11
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	9		9
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
25-ZIZUR	16	2	16
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	11		11
PEDIATRIAKO lanpostuak	5	2	5
26-BARAÑAIN	15		15
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	13		13
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
27-GARES	9	1	9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8		8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1	1	1
28-NOAIN	13		13
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	10		10
PEDIATRIAKO lanpostuak	3		3
29-ZANGOZA	14		14
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	13		13

Medikuntzako eta pediatriako lanpostuak (2022/11/23)	BETERIKO lanpostuak	BETE GABEKO lanpostuak	Gutzizko orokorra	
		Medikua		
	Osasun barrutia/Oinarrizko osasun eskualdea/Taldea	BAI	pediatriako eginkizunetan	EZ
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
30-ZARAITZU	6			6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6			6
31-IZABA	6			6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6			6
40-TAFALLA	9			9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7			7
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
41-ARTAXOA	5		1	6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	5			5
PEDIATRIAKO lanpostuak	0		1	1
42-ZARRAKAZTELU	7		1	8
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6		1	7
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
43-ERRIBERRI	9			9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8			8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1			1
44-AZKOIEN	15		1	16
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	13		1	14
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
61-AZPILAGAÑA	10			10
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8			8
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
63-MENDILLORRI	6		1	7
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	4		1	5
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
64-ANTSOAIN	8			8
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6			6
PEDIATRIAKO lanpostuak	2			2
66-BUZTINTXURI	10			10
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6			6
PEDIATRIAKO lanpostuak	4			4
67-SARRIGUREN	13			13
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	7			7
PEDIATRIAKO lanpostuak	6			6
68-ARANGUREN	6	1		6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	4			4
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1		2
02-TUTERA	95	6	0	95
45-TUTERA MENDEBALDEA	11	1		11
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	9			9
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1		2
46-TUTERA EKIALDEA	16,5	1		16,5
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	13,5			13,5

Medikuntzako eta pediatriako lanpostuak (2022/11/23)			
	BETERIKO lanpostuak	BETE GABEKO lanpostuak	Gutzizko orokorra
Osasun barrutia/Oinarritzko osasun eskualdea/Taldea	BAI	Medikua pediatriako eginkizunetan	EZ
PEDIATRIAKO lanpostuak	3	1	3
47-VALTIERRA-CADREITA	16		16
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	14		14
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
48-CORELLA	12,5	2	12,5
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	10,5		10,5
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	2	2
49-CINTRUÉNIGO	11	1	11
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	9		9
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1	2
50-CASCANTE	12,5	1	12,5
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	10,5		10,5
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1	2
51-BUÑUEL	16,5		16,5
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	14,5		14,5
PEDIATRIAKO lanpostuak	2		2
03-LIZARRA	90	4	3
32-LIZARRA	14	1	1
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	11		11
PEDIATRIAKO lanpostuak	3	1	1
33-VILLATUERTA	13	1	13
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	12		12
PEDIATRIAKO lanpostuak	1	1	1
34-ALLO	6		6
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	6		6
35-ANTZIN-AMESKOA	11		11
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	11		11
36-LOS ARCOS	5		1
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	5		1
37-VIANA	9		9
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	8		8
PEDIATRIAKO lanpostuak	1		1
38-LODOSA	16	1	1
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	15		1
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1	2
39-SAN ADRIÁN	16	1	16
MEDIKUNTZAKO lanpostuak	14		14
PEDIATRIAKO lanpostuak	2	1	2
Gutzizko orokorra	630	17	11
			641

0-22/PES-00319. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberak egindako txostenari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5665 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko urriaren 17an (10-22/PES-319 galdera), Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenaren bidez maskarak erostearen gainean Kontuen Ganberari txostena eskatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiak harreman ia etengabeak ditu Kontuen Ganberarekin, Foru Komunitateko Administrazioaren jardura ekonomiko-finantzarioaren gaineko kontrol lan guztiak ukitzen dituen komunikazio iraunkorraren testuinguruan, lan horiek Kontu-hartzaitza Nagusiak egin nahiz Kontuen Ganberak egin. Hori horrela, Zuzendaritza Nagusiak finantza-kontrola eta auditoretzako txostenen bat egiten duenean hura beti igortzen zaio Kontuen Ganberari.

Sozietate eta fundazio publikoei legezkotasunaren auditoretza egiten zaie urtero, eta horren

atala da Hitzartutako Prozeduren gaineko Txostenaren gehigarria, 2020ari dagokiona. Gehigarri hori 2022ko uztailaren 27an eman zen eta ohiko bidetik bidali zitzaion Kontuen Ganberari. Irailaren 9an Ganberak erabaki zuen berariazko auditoretza egitea SODENAK norbera babesteko ekipamenduak erosteko egindako kudeaketari buruz, eta egun berean izendatu zuen lan hori egin behar zuen taldea. Irailaren 14an bilera egin zen Ganberak lan horretarako izendatutako auditoretzako taldearekin, eta gehigarriaren sinaduran ageri diren pertsonak bertaratu ziren Nafarroako Gobernuaren izenean: Kontu-hartzaitzako zuzendari nagusia, Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuko zuzendaria eta Auditoretza Ataleko burua; eta gehigarria egitean lortutako dokumentazio osoa eman zitzaien. Gero, zirriborroa eman zen, zeinean aldaketak egin baitzitezkeen, eta ondoren bilera egin zen abenduaren 1ean. Honako hauek joan ziren: Ganberaren izenean, haren lehendakaria, idazkari nagusia eta lanaren ardura zuen auditorea; eta Foru Komunitateko Administrazioaren izenean, Kontu-hartzaitzako zuzendari nagusia eta Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuko zuzendaria.

Bigarren galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez dio Kontuen Ganberari inolako eskaerarik egin hark aurreikusita daukan txostena egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

110-22/PES-00320. Galdera, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitutako zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Next Generation funtsetatik Nafarroari esleitutako zenbatekoari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 21eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5666 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko urriaren 17an (10-22/PES-00320 galdera), urriaren 7ko agerraldiari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.-Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurreikuspenen arabera, zein izanen da Nafarroari guztira esleituko zaion diru-kopurua, gehigarria aintzat hartu gabe?

Funts hauen banaketaren eta esleipenaren arkitekturak hiru alderdi ditu: SEM programa, REACT programa eta PERTEak eta ministerioen edo toki administrazioen zuzeneko deialdiak.

Next Generation Bulegoak SEM alderdia kudeatzen du.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Mekanismotik Foru Administrazioak kudeatzen duen zatiari erreparatu eta kopuruez hitz egiten badugu, gaur egun, 2022ko urriaren 31n, Nafarroan 220.461.684 euroko gastua daukagu baimenduta SEMeko inbertsioak egiteko eta 449,7 milioi euroko finantzaketa aurreikusia, 111 proiekturen artean banatua.

2.- Eta gehigarria aintzat hartuta?

Gehigarria ez dago kuantifikaturik, oraindik ez delako ukigarria.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

10-22/PES-00321. Galdera, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Buil García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Netquality SL enpresak 2014tik jasotako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 28ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu Navarra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00321), Netquality SL enpresak 2014tik gaur egun arte jasotako dirulaguntzei buruz. Hona Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunaren erantzuna:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak dirulaguntza hauek eman dizkio aipatu enpresari:

- 1.528,25 euro ordaindu zitzaizkion 2021eko azaroan, ETEen eraldaketa digitalerako laguntzen deialdi honetan: "Nafarroako enpresa digitalen sustapena 2021".

- 4.000 euro, oraindik ordaindu gabe, mugikor-tasun efiziente eta jasangarrirako pizgarrien programan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barnean, Europar Batasunak finantzatuta (Next Generation EU).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 12an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-22/PES-00322. Galdera, Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako akordioari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Galdera 2022ko urriaren 28ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22-PES-00322), jakin nahi baitu zer arrazoi dauden departamentuak eta EKHK Bardeako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin akordioa azkar amaitu ez izateko Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBE eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak erantzuna helarazten dio, Ingurumeneko zuzendari nagusiak egindako txostenetik jasoa.

1. Dos Reinosko urmaela eremu babestua da, eta Natura 2000 sarean dago. Kalifikazio hauek biltzen ditu: lekune naturala (EN-13), kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (BBE) Hezegunearen ezaugarriak ditu, eta hezegune mediterraneoetako ohiko balioak dituelako sartu zen sarean, batez ere hegazti urtarren komunitateagatik, baina baditu beste kontserbazio elementu batzuk ere, hala nola habitat higrofilo eta halofiloak edo igaraba, bisoia eta beste ugaztun batzuk.

2. Urmaelak 30 bat hektarea ditu, horietatik 20 sakonera txikiko ur-laminan (1,6 metroko sakone-

ra, gehienez), eta 0,2 hektometro kubiko ur bildu ahal du. Jatorri erabat artifizialekoa da. Nekazaritza Ministerioak eraiki zuen, 1950eko hamarkadaren azkenean, Bardeako Ubideko obren kariatz, eta gero Nafarroako Gobernuari laga zion.

3. Bardeako Ubideko ureztaketa bide eta erretenen sareko erreten batetik sartzen da ura urmaelera, Bardeako II. ureztatzaile elkartearen eremuan, Figarolen.

4. Urmaelak ez du balio ureztaketarako. Uda-berriko eta neguko hilabeteetan (ureztaketa garaian), ureztatzaileen elkarte horrek, trukean ezer jaso gabe, ebapotranspirazioaren ondoriozko maila jaitsierak konpentsatu izan ditu, ureztaketa-ko ur soberakina sartzen utziz A-VI.4 erretenaren bidez. Udazkenean eta neguan ere ur maila altuei eusten zaie prezipitazioen ekarpen hutsarekin. Beraz, uraren berritze tasa txikia duen hezegunea da.

5. Bardeako II. ureztatzaile elkartearen eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren arteko hitzarmen bat prestatzen ari da. Hitzarmen horrek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren oniritzia jaso behar du. Hainbat bilera egin dira inplikaturako hiru alderdien artean, balizko hitzarmen horren eduki administratiboak, ekonomikoak, juridikoak eta teknikoak zehazteko.

6. Orain Ingurumen Zuzendaritza Nagusia zain dago ureztatzaile elkarteari eskatutako azken informazioa noiz jasoko, departamentuko zerbitzu juridiko eta teknikoek eskatu dituzten xehetasunekin, hitzarmenaren zirriborroa ixteko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igortzeko, behin betiko onespenerako behar den baimena eman dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00323. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetzak-akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Bardeetako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetzak-akordioa amaitzeko aurreikusitako datari buruzkoa, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Galdera 2022ko urriaren 28ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22-PES-00323), jakin nahi baitu EKHekin eta Bardeako 2 zenbakiko ureztatzaileen elkartearekin egindako lankidetzak-akordioa amaitzeko aurreikusitako data, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBE eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak erantzuna helarazten dio, Ingurumeneko zuzendari nagusiak egindako txostenetik jasoa.

1. Dos Reinosko urmaela eremu babestua da, eta Natura 2000 sarean dago. Kalifikazio hauek biltzen ditu: lekune naturala (EN-13), kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (BBE) Hezeguneen ezaugarriak ditu, eta hezegune mediterraneoetako ohiko balioak dituelako sartu zen sarean, batez ere hegazti urtarren komunitateagatik, baina baditu beste kontserbazio elementu batzuk ere, hala nola habitat higrofilo eta halofiloak edo igaraba, bisoia eta beste ugaztun batzuk.

2. Urmaelak 30 bat hektarea ditu, horietatik 20 sakonera txikiko ur-laminan (1,6 metroko sakone-

ra, gehienez), eta 0,2 hektometro kubiko ur bildu ahal du. Jatorri erabat artifizialekoa da. Nekazaritza Ministerioak eraiki zuen, 1950eko hamarkadaren azkenean, Bardeako Ubideko obren kariaz, eta gero Nafarroako Gobernuari laga zion.

3. Bardeako Ubideko ureztaketa bide eta erretenen sareko erreten batetik sartzen da ura urmaelera, Bardeako II. ureztatzaile elkartearen eremuan, Figarolen.

4. Urmaelak ez du balio ureztaketarako. Uda-berriko eta neguko hilabeteetan (ureztaketa garaian), ureztatzaileen elkarte horrek, trukean ezer jaso gabe, ebapotranspirazioaren ondoriozko maila jaitsierak konpentsatu izan ditu, ureztaketako ur soberakina sartzen utziz A-VI.4 erretenaren bidez. Udazkenean eta neguan ere ur maila altuei eusten zaie prezipitazioen ekarpen hutsarekin. Beraz, uraren berritze tasa txikia duen hezegunea da.

5. Bardeako II. ureztatzaile elkartearen eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren arteko hitzarmen bat prestatzen ari da. Hitzarmen horrek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren oniritzia jaso behar du. Hainbat bilera egin dira inplikaturako hiru alderdien artean, balizko hitzarmen horren eduki administratiboak, ekonomikoak, juridikoak eta teknikoak zehazteko.

6. Orain Ingurumen Zuzendaritza Nagusia zain dago ureztatzaile elkarteari eskatutako azken informazioa noiz jasoko, departamentuko zerbitzu juridiko eta teknikoek eskatu dituzten xehetasunekin, hitzarmenaren zirriborroa ixteko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igortzeko, behin betiko onespenerako behar den baimena eman dezan.

7. Hori guztia kontuan izanda, aurreikusten dugu laster emanen digutela informazioa eta hitzarmenaren testua abenduan itxiko dela.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria Itziar Gómez López

10-22/PES-00324. Galdera, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBB eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko larrialdi-plan bat ote dagoen jakiteari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 28ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22-PES-00324), jakin nahi baitu ea larrialdi-planik ba al dagoen Figarolgo kontzejuko Dos Reinosko urmaeleko KBE eta BBEaren hezegunearen habitataren kolapsoa konpontzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak erantzuna helarazten dio, Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendari nagusiak egindako txostenetik jaso.

Dos Reinosko urmaela jatorri artifizialekoa da eta bere jatorrizko diseinuan ez du urik jasotzen

ur-korrante naturaletatik, aitzitik, prezipitazioen bidez eta Bardeako II. ureztatzaile elkartearen ureztaketako erretenaren bidez bakarrik jasotzen du ura. Hori guztia kontuan izanda, urmaela urez hornitzeko aukera bideragarri bakarra ureztatzaile elkartearekin akordioa egitea da.

Departamentu honek ez du uste hezegune hori kolapsoan dagoenik. Ingurumen Zaintzak urrian egindako bisitaren ondoren jakinarazi du gaur egun han ikusten diren ahateak ez direla urpekarriak. Limoetako hegaztiak asko ugaritu dira, ur maila baxua (hondoko lohiekin) eta ur ertz zabala-goak aproposak direlako hegazti horientzat. Bisitan espezie hauek ikusi dituzte: basahatea, zertzeta arrunta, koartza hausgara, koartzatxo txikia, kuliska, txirri arrunta, lepabeltza, borrokalaria, istingor arrunta. Tximutxaren kantua ere detektatu da.

Bestalde, neguan prezipitazioek urmaeleko ur mailari eutsiko diotela edo are zertxobait igoaraziko dutela espero da.

Departamentu honek lanean jarraitzen du gogotik, alderdi guztiak asebeteko dituen akordio batera iristeko eta hezegune horretarako ur hornidura nahikoa bermatzeko.

Iruñean, 2022ko azaroaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00325. Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bilakatzeko dekretuaren idazketa kudeatzeko aholkularitza pribatu bat kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 28ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-22/PES-00325 idatzizko galderari dago-kionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Irailaren 1ean, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak (hemendik aurrera, EAIZ) lan bilera batera deitu zion Areté-Activa aholkularitza enpresari, irailaren 5erako, haren esperientzia baloratzeko eta laguntzeko prest zegoen jakiteko, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak arautuko dituen foru dekretua prestatzeko parte-hartze prozesuari begira.

Proposatutako helburua da aholkularitza enpresak Hezkuntza Departamentuari laguntza eta sostengua ematea lantalde bat dinamizatze, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarritzko alderdiak arautuko dituen foru dekretu berri-

rako ideien garapenerako, erkaketarako eta ekar-penerako.

Aholkularitza enpresak dinamizazio proposa-men bat igorri eta Hezkuntza Departamentuak onartu egin du. Bertan zeregin eta produktu hauek zehaztu dira:

- Kabinetako lana, saioetako edukia prestatze-ko eta saioen ondoren hura berrikusteko.

- Parte-hartze Batzordearekiko 2,5 orduko saioak –lau saio guztira– dinamizatzea, interese-ko taldeen ekarpenak biltzeko.

- Hala behar denean, EAIZko zuzendaritza-egiturako pertsonekin bakarka biltzea estrategia-ren hedapenean eta emaitzen ebaluazioan lagunt-zeko.

- Ekarpak eta iradokizunak hartzeko posta elektronikoa zabalik 24 orduetan eta 7 egunetan.

- Saioetako aktak egitea.

- Jarduketa-oroitidazkia eta neurriak dokumen-tu batean biltzea foru dekretuari gehitzeko.

Aurkeztu nahi den foru dekretu proiektua hain garrantzitsua izanda, Hezkuntza Departamentuak ezinbestekotzat jo zuen laguntza tekniko espezia-lizatua izatea parte-hartze prozesu bizkorra eta gardena egin ahal izateko hezkuntza komunitate-ko eragileekin, ekarpenen eta gogoeten fasean.

Iruñean, 2022ko azaroaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gur-pegui

10-22/PES-00326. Galdera, Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatze-ari buruzkoa.*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak informazioa eskatu du Allozko urtegiko urez Salado ibaian ureztatzeari buruz. Landa

Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak erantzuna helarazten dio, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko zuzendari nagusiak egindako txostenetik jasoa:

“Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak ez dauka informazio hori. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak dauka, haren jarduketa-eremuan ureztatzeko kontzesioen zerrenda haren artxiboan dagoelako”.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00327. Galdera, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zordion errentari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Estudios Melitón enpresak Nasuvinsari zordion errentari buruzkoa. Galdera 2022ko azararen 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 10-22/PES-00327 galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

- Instalazioen errentaren ordainketan Estudios Melitón SL enpresak Nasuvinsari zenbateko hau zor dio: 25.874,64 euro (BEZa barne), 2022ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko aldiagatik

- Nasuvinsak ez du inoiz errentamendu kontratuko errentaren ordainketarako bigarren gabealdi-

rik sinatu Estudios Melitón SLrekin. Gabealdia 2021eko abenduaren 31n amaitu zen.

- Errentamenduaren indarraldian errentariaren kontura izan ziren instalazioen mantentze-lanak. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta ez ordaintzearen ondorioz kontratua suntsiarazi zen (suntsiarazpena urte bereko abuztuaren 19an jakinarazi zen), eta harrezkero Nasuvinsari dagozkio mantentze-lanak.

- Mantentze-lan nagusiak dira lurzatia garbitu eta belar-sastrakak kentzea eta instalazioetako ateetako sarraila-zilindroak aldatzea. Nasuvinsak 806,23 euro ordaindu ditu lan horiengatik.

- Mantentze-lanak zuzenean adjudikatu zitzaizkion Tasubinsari, haien zenbatekoak horretarako bidea ematen baitu, Nafarroako Kontratu Publiko-
ei buruzko Foru Legearen babesean.

- Nasuvinsak ez du inolako jarduerarik egin Estudios Melitón SLri errentan emandako instalazioetan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betetz.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

10-22/PES-00328. Galdera, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioien jomugari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00328), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "Joan den 2022ko irailaren 21ean, Aierdi lehendakariordeak honako hau adierazi zuen Gobernuaren bilkuraren osteko prentsaurrekoan: "Estatu osoan, bagenekien 178 milioi euroko partida bat iragartzen zela Oinarrizko Osasun Laguntza sendotzeko (...) Ministerioaren-

gandik baliabideak jasotzea espero dugu..." Bideratuko al da Nafarroako Foru Komunitatera Espainiako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako 178 milioi horien zatiren bat? Zenbat diru iritsi da edo iristea espero da Nafarroara, noiz, eta zertarako erabiliko da zehazki?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Galderan aipatu den zenbatekoa Autonomia Erkidegoei eta INGESAri Oinarrizko eta Komunitateko Osasun Laguntzaren 2022ko Esparru Estrategikorako emandako funtsei dagokie. Funtshoriek autonomia erkidego guztiei banatzen zaizkie, EAE, Nafarroa, Ceuta eta Melillari izan ezik, AIREFek ezarritako irizpideei jarraituz, Araubide erkideko autonomia erkidegoak finantzatzeko sistema arautzen duen abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 9. artikuluan ezarritakoa oinarri.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan sedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00329. Galdera, Nafarroako patologien baheketari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako patologien baheketari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00329 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez jaioberrien baheketa hedatuari buruzko informazioa eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Programa poblacional de cribado neonatal. Recomendaciones Ponencia Cribado	Incorporado	Lugar donde se realiza
Hipotiroidismo congénito	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Fenilcetonuria	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Fibrosis quística	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Deficiencia de acil-Coenzima A deshidrogenada de cadena media	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Deficiencia de 3-hidroxi acil-Coenzima A deshidrogenasa de cadena larga	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Acidemia glutárica tipo I	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Anemia de células falciformes	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Déficit de Biotinidasa	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Hiperfenilalaninemias	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Enfermedad de la orina con olor a jarabe de arce	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Homocistinuria	Sí	Laboratorio Derio (País Vasco)
Hiperplasia suprarrenal congénita	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Patologías que la Ley Foral 10/2021 procede a incluir		
Tirosinemias tipo I, II y III	Sí, Ia I y II	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Citrulinemias I y II	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Acidemia propiónica	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Acidemia metilmalónica	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit de cetotiolasa	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit de proteína trifuncional mitocondrial	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Aciduria 3-hidroxi 3-metilglutárica	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit de 3-metilcrotonil-CoA carboxilasa	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Aciduria 3-metilglutacónica	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Isobutiril glicinuria	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit de carnitina palmitoil transferasa I	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Deficiencia de Acil-CoA deshidrogenasa de cadena muy larga	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit de Acil-CoA deshidrogenasa de cadena corta	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Déficit múltiple de Acil-CoA deshidrogenasa	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)
Galactosemia GALT	No	Se hace en Galicia
Galactosemia GALK	No	Se hace en Galicia
Inmunodeficiencias combinadas	No	Se hace en Cataluña (la ID combinada grave)
Adrenoleucodistrofia asociada al cromosoma X	No	No conocemos que se haga en ninguna Comunidad Autónoma
Síndrome de Pompe	No	No conocemos que se haga en ninguna Comunidad Autónoma
Mucopolisacaridosis tipo I	No	No conocemos que se haga en ninguna Comunidad Autónoma
Acidemia Isovalérica	Sí	Laboratorio Hospital Miguel Servet (Zaragoza)

Nafarroako Parlamentuak Nafarroan jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legea onetsi zuen.

Orduan EAeko laborategiarekiko hitzarmenean sartzen ziren Osasun Publikoko Batzordeko Baheketaren Lantaldeak onetsitako 11 gaixotasunetik 10, eta sartzeko zegoen sortzetiko hiperplasia suprarrenalala, foru legea argitaratu ondoren onetsi baitzen. Foru lege horrek baheketan 21 metabolopatia gehiago sartzeko aukera ematen du.

Ordura arte EAeko laborategian egiten ziren analisiak, baina haren zerbitzu zorroa gurearen antzekoa zen alor horretan, eta, beraz, ez zuen legea betetzeko aukerarik ematen.

Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin hitz egin ondoren egiaztatu zen Zaragozako Miguel Servet Ospitaleko laborategian egin zitekeela legeak aurreikusten dituen gaixotasunetik gehienek baheketa, ez guztiena, ordea. Denbora aurrera zihonez, eskuz ekin zitzaion lankidetzari, integrazio informatikorik gabe.

NOPLOIren Metabolopatiaren Baheketa Programaren eta laborategi horren arteko integrazio informatikoa egin arte, eredu mistoa erabiliko da, bi bide jorratuz:

- Batetik, EAeko laborategian jarraituko da gaur egun bahetzen diren gaixotasunen baheketa egiten.

- Osagarri gisa, Miguel Servet Ospitaleko laborategian bahetuko dira aginduan aurreikusita dauden eta laborategi horrek dagoeneko bere zerbitzu zorroan dituen gainerako gaixotasunak, baina informazioa eskuz kudeatuko da.

Patologia guztiak Zaragozako Miguel Servet Ospitalean bahetzeko urratsa egin ahal izateko, laborategi horren informazio sistemak Sortzetiko Metabolopatiak Detektatzeko Programako aplikazio informatikoarekin integratu behar dira. Bideragarritasun azterketa 2023ko otsailean bukatzekoa da.

Jaioberriei lagin handiagoa hartzen ari zaie bi txartel betetzeko eta txartel bana eramateko eguneroko EAera eta Zaragozara. Beraz, baheketan patologia gehiago sartu ahal izateko, aurretik EAeko edo Aragoiko zerbitzu zorroan sartu behar dira. Esaterako, hala egin da sortzetiko hiperplasia suprarrenalarekin –hau da, Baheketaren Lantaldeak gomendatu duen azken gaixotasunarekin–, nahiz eta ez izan foru legean aurreikusitako patologietakoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00330. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria Next Generation funtsekin finantzatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du NUPeko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikinarri buruz (10-22/PES-00330). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, lanean aritu da eta ari da, Next Generation EU funts europarrak eskuratu

ahal izateko argitaratzen diren deialdi guztiei eta lotutako oinarriei eta dokumentazioari adi.

Aipatu duzun dokumentuan azaltzen denez, departamentuak, eta zehazki Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak, helburutzat zuen hiru proposamen aurkeztea Europako Next Generation EU funtsak banatzeko argitaratuko ziren deialdietan. Proposamen horietako bat NUPeko Osasun Zientzien Fakultaterako eraikin berri bat eraikitze-ko finantzaketari buruzkoa zen.

Proposamen horietako bi deialdietan aurkeztu dira jada: Campus Jasangarriarena eta Campus Digitalarena. Aldiz, Next Generation UE funtsak banatzeko deialdietako bakar batean ere ezin izan da aurkeztu Unibertsitateko hezkuntzaren esparruko beste proiektu hori.

Nafarroako Gobernuan erne jarraitzen dugu ea etorkizuneko deialdiren batean proiektu hori aurkeztu ahal den, finantzaketa lortzeko, hala bada-gokio.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

10-22/PES-00331. Galdera, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak

galdera egin du zaharren egoitzen esparruan sindikatuek proposatzen duten eran hitzarmena aplikatzearen kostu ekonomikoari buruz (10-22/PES-00331). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Eskubide Sozialetako Departamentuak ez dauka behar den informazioa sindikatuen hitzarmen-proposamena bere aplikazio-eremu osoan aplikatzearen kostua kalkulatzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00332. Galdera, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du 2021eko Nafarroako Errenta Bermatuaren urteko balantzeko 15. taulan bildutako datuei buruz (10-22/PES-00332). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Izan ere 15. taulako C letran jasotako datua okerra da. Laneratzeagatik izandako aldi baterako etenaldien kopurua (529) jarri da C letran, baina datu hori aurreko atalekoa da (I.c), eta C letran (A - B) kenketaren emaitza jarri behar zen.

Concepto	2017	2018	2019	2020	2021
I. Suspensión (baja) de la prestación por encontrar empleo					
a. Extinción de la prestación por incorporación al mercado laboral(*)	669	540	678	357	731
b. Extinción de la prestación por incorporación a empleo social protegido u otro empleo subvencionado	216	168	106	46	144
c. Suspensión temporal de la prestación por incorporación laboral	304	528	509	314	529
A. Total baja de la prestación (a + b + c)	1.189	1.236	1.293	717	1.404
B. Hay nueva solicitud (hasta febrero 2022)	389	233	238	182	424
C. A fecha de informe no hay nueva solicitud (A - B)	800	1.003	1.055	535	529
II. Mecanismos de incentivación del empleo compatibilizando con la prestación					
d. Aplicación de estímulos al empleo	900	1.905	3.848	3.245	3.532
e. Modificación de la prestación por incorporación a empleo social protegido u otro empleo subvencionado	271	336	306	263	286
D. Total modificación de la prestación (d + e)	1.171	2.241	4.178	3.508	3.818
III. Total baja más modificación por incorporación laboral (A + D)	2.360	3.477	5.471	4.225	5.222

Beraz, 2021eko C letran honako hau jarri behar da: (1.404 - 424 = 980). Datua zuzendu eginen dugu 2021eko memorian.

Bidenabar, 2021eko memoria arretaz irakurri izana eskertzen dizut, eta barkamena eskatzen dizut akatsak eragindako eragozpenengatik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-22/PES-00333. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriei buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak 2021ean gauzatutako pentsioei eta pentsioen osagarriei buruz (10-22/PES-00333). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariari informatzeko duena:

Esparza jaunak eskatu dituen datuak aurkeztu aurretik, argitu behar da Eskubide Sozialetako Departamentuan kudeatzen diren pentsioak eta pentsioen osagarriak honako hauek direla:

1. Desgaitasuna duten pertsonentzako prestazio sozial eta ekonomikoak, tartean mugikortasunerako eta garraio gastuetarako sorospena (LISMI legean aurreikusia). Otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretuan arautu ziren, eta abenduaren 20ko 26/1990 Legeak, kotizazio gabeko pentsioak arautu zituenak, ezabatu egin zituen. Lege hori argitaratu zenean, kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioek ordeztu zuten sorospen hori. Beraz, jada ez da igotzen, eta desagertzera jotzen du.

2. Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak, 1991. urte-

tik Nafarroan kudeatzen direnak (abenduaren 28ko 1681/1990 Errege Dekretua).

3. Alokairurako osagarria kotizazio gabeko pentsioa dutenentzat. Aurreko prestazioak bezala, estatu eremuko da. Abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretuak arautzen du, zeinaren bidez arauak ezartzen baitira Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioa dutenei etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarria emateko.

Bestalde, alargun- edo erretiro-pentsioa dutenei zenbait kenkari aplikatzea aurreikusten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginak, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiak. Kenkari horien aplikazioa aurreratu egin daiteke bi kasu zehatzetan: batetik, gutxienekoetara iristeko osagarriarako

eskubidea duten alargun-pentsioetan, eta bestetik, kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan, pentsiodunak errenta bermatuaren baldintzak ere betetzen baditu. Halako kasuetan, modalitate horretarako eskaera egin behar zaio Eskubide Sozialetako Departamentuari, hark baloratu eta, bidezkoa bada, ordainketa aurreratua proposa dezan.

Laburbilduz, hizpide dugun arloan gizarte babeseko hiru motatako neurriak erabiltzen ari dira gaur egun: pentsioak, alokairurako osagarria eta zergen kenkariak.

Hauek dira hiru modalitateen kudeaketari buruzko 2021eko datuak: Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak				
Neurriaren modalitatea	Pentsioen kopurua	Zenbatekoa, batez beste (€)	Hilean, batez beste (€)	Guztira
Lehengo LISMI	50	1.775,26	147,94	88.762,99
Erretiroko KGP	1.907	4.771,71	397,64	9.099.644,41
Baliaezintasuneko KGP	1.204	5.579,83	464,99	6.718.112,61
Etxebizitzarako osagarria (KGP)*	156	525,00		81.900,00
Kenkariak, alargun-pentsioengatik eta erretiroko kotizazio gabeko pentsioengatik				
Alarguntza	4.019	856,78	71,40	3.443.404,32
Erretiroko KGP	602	1.691,70	140,97	1.018.402,51

*Alokairurako osagarria behin ordaintzen da. Gainerako modalitateak hilerok ordaintzen dira

10-22/PES-00334. Galdera, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruzkoa. Galdera 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroan etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruz (10-22/PES-00334). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako Foru Komunitatean etxegabetasun egoeran dauden pertsonen buruz Nafarroako Gobernuak daukan informazioa Espainiako Estadistika Institutuak etxerik gabeko pertsonen 2022an egindako inkestatik atera da. Inkesta horretan honako pertsona hauen bizi baldintzei buruzko informazioa bildu da: 18 urte edo gehiago dituzten etxegabekoak, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan ostatu edota otorduak ematen dituzten laguntza-zentroak erabili dituztenak.

Hemen kontsultatzen ahal da:

https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176817&menu=ultiDatos&idp=1254735976608

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

